

baiña aren azi-garaunik
lurrean erein ete?

Bake ez tirako bideak
—eguzki erraiñuak—
ez dira danak erreztu
guk eskuratzekuak.

Baiña muiñak giro beitez
ortarako asmotan
ta zoriaren argiak
dizdiz dagike bertan.

ZORATUA

Ixil-ixillik dago ondartzia gorria;
eztabil goizean lez itxas-aize mia.

Ura esi-bearrez arkaitzak zerrendan,
eguerdia da-ta, eguzki galdatan.

Oiu! Norena ete? Neskatil batena.
Ixillaren miesa zarrastu dauena.

Neskatil batek jo dau aitzera laisterka,
aizetara iñarrosiz uledi-mordoxka.

Soin-lerden, zail, aitz-antzo, aurrez ur-zingira;
adi-adi dago urdin-mugara begira.

Eskuz dau arpegia, zotinka, estali;
ene!, aren begiak negarrez iturri!

Zer dau? Zergaitik malkoz neskatxak begia?
Zek oiñazetzen ete dautso biozpea?

Urduri dabilkio asmo, izpi antzera;
maiteak iges ete cntziz urriñera?

Begiak zirkinka ta biotza pilpil,
jauzi azartu baten uretan da murgil.

Au ikus-ta, ur-neskatxak, sorgiñak bai-litzan,
uger-ukaldi gezal-gaiñez, bar-irritan.

ERIoTZORRI

Eder baizen lirain da-ta,
itun bizi da **Eriotzorri**;
urriñeko zelai-lagun,
ur-ezpondetan, gorri.

Zergaitik ezta jaioten
bere ingurun lorarik?
Zergaitik bizi ete da
urrin, bakar-bakarrik?

Nok barnean goibela sar?
Zek laiñoz begik itzali?...
—Lorak, zur zagokidaze,
ta ona bere edesti.

Zelatan bizi ei zan len,
panpin, arro ta guri,
alboan itz-oska joian
lastxoaren pozgarri.

Bedar-zelaí ekarkorren
ugin jantzi gaiñetan
lora eder usaindunik
naiko begiz jo eban.